



AGINDUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO DEKRETU BERRIA ONARTZEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Eusko Jaurlaritzak arautze-lanak egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko antolaketa-arloa dela eta, 3/1979 Lege organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua eta jarraian aipatzen diren legeak garatzeko: batetik, 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arautzekoa eta, bestetik, uztailaren 6an onartutako Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea.

Araugintzan egindako lanaren fruitu dira, besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera eta normalkuntzari buruz azaroaren 25ean onartutako 250/1986 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza arautuz urriaren 17an onartutako 224/1989 Dekretua; lanpostuei izendatutako hizkuntz eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak ezarriz urriaren 9an onartutako 264/1990 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua ezartzeko zenbait neurri arautuz abuztuaren 3an onartutako 238/1993 Dekretua (azken horren zati batzuk aldatu zituen gero otsailaren 15eko 89/1994 Dekretuak); Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan hizkuntz normalkuntza-prozesuaren jarraipenerako behin-behineko neurri batzuk arautuz abenduaren 19an onartutako 517/1995 Dekretua. Bereziki aipatzekoa da 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, prozedura honen bitartez onartu nahi den dekretu berriak indargabetu eta ordezkatu duena.

Aipatutako eskumenaren baitan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egokitzen eta zilegizatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Sektorer Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko duen proiektua egiteko prozedura hau prestatu eta abiaraztea.

Proiektuak eta hura izapidetzeko prozedurak bat etorri beharko dute Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legean ezarritako bidearekin (8/2003 Legea, abenduaren 22koa).

Zehazki, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 4. artikuluko lehen apartatuan xedatzen du “xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien arloan eskumena duen saileko sailburu titularraren aginduz” hasiko dela.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak du eskumena, halaxe zehazten baita 24/2016 Dekretuan, azaroaren 26koa, bere 14. artikuluan.





Arauaren xedea eta helburua

Horrenbestez, hauexek izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen proiektuaren helburuak:

Arau berria 86/1997 Dekretua ordezkatzera dator. Dekretu honek ibilbide oparoa egin du, eta lanabes baliagarria izan da euskararen normalizazioaren bidean aurrerapausoak egiteko. Izan ere gaur egun dekretu horren menpeko langileen euskararen ezagutza %70etik gora dago, eta dekretu hori abian jarri baino lehen horien portzentajea ez zen %25etik gorakoa. Beraz, esan dezakegu ezagutzan eta, neurri txikiagoan, erabileran bere eginkizuna bete duela.

Dena dela, euskararen ezagutzan erronka berriak datoz, kontuan hartzen badugu EAeko gazterian dagoen ezagutza % 80tik gorakoa dela eta horiek gure oraingo administrazioko langileak ordezkatzera deituak daudela. Gainera, daukagun eta, areago, edukiko dugun funtzionarioen euskararen ezagutza kontuan hartuta, bigarren pausoa egin nahi da, eta lan jarduketan euskaraz eta gaztelaniaz lan egingo duen administrazioa lortzeko bidean jarri nahi da Dekretu honekin.

Halaber, planifikazio tresnen bitartez erakunde bakoitzaren autonomia mantenduz bakoitzaren berezitasunek isla eduki dezaten beraien normalizazio prozesuan, Dekretu bakar batean batu nahi dira EAeko sektore publiko osorako normalizazio arau orokor amankomunak; tartean: Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza, Justizia, sozietate publikoak...

Dekretu berriaren helburua da hizkuntza normalizazioa garai berrietara egokitzea, eta sektore publiko osoaren koordinazioa lortzea.

Eragin ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetako hizkuntza normalizazioak baliabide ekonomikoak eskatu izan ditu eta, Dekretu berriarekin ere, oraindik beharrezkoak izango dira.

Halere, Dekretuak ez du eragin ekonomiko berririk sortuko, aintzat harturik gaur egun indarrean dagoen araudiak ezartzen dietela dagoeneko eragindako erakundeei normalizazioaren aldeko neurriak hartzea beraien zerbitzuko langileen euskalduntzeari begira.

Proposatutako arauketaren edukia

- Eragin eremua
- Planifikazioa
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- Hizkuntza-eskakizunak
- Euskararen gaitasuna egiaztatzeko eta aitortzeko moduak

- Derrigortasun-datak
- Euskara mailen eta/edo derrigortasun-daten aginduzko txostenak
- Lanpostuen Horniketa
- Normalizazioaren gaineko eragina
- Xedapen gehigarriak
- Xedapen iragankorrak

Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.2 artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio hizkuntza normalizazioaren eskumena; halaber, 10.24 artikulua aitortzen dio bere sektore publikoari buruzkoa ere.

82/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren egitekoen artean zerrendatzen du euskararen erabilera normalizatzeko legeria garatzeko arauzko neurriak aztertu eta proposatzeko ahalmena.

Ordenamendu juridikoan edukiko dituen ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuari dagokionez, Dekretu berriak indargabetu eta ordezkatu egingo du.

Alor berean indarrean dauden gainontzeko arauak dagokienez, hala nola Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Hezkuntza Sailak, Segurtasun Sailak, Osasun Sailak eta Lan eta Justizia Sailak onartutako zenbait arautan ere eragina izango du; errespetatuz bakoitzaren legedi berezietatik etor daitezkeen ñabardurak eta planifikazio tresnen bitartez beraien autonomia bermatuz, normalizazio arau orokor amankomunak talka egin dezakete gaur egun onartuta dituzten ezarpen batzuekin.

Aipagarriak dira arau horien artean:

- Otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena.
- Martxoaren 18ko 67/2003 Dekretua, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzekoa.
- Kultura sailburuak 2003ko abuztuaren 6an emandako Aginduaren bitartez, Helduen Euskalduntzearen oinarriko curriculumean ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko sistema zehaztutako duena.
- 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari hizkuntza normalkuntzari buruzkoa.
- 64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzekoa.

- 47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena.
- 66/2005 Dekretua, apirilaren 5koa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza eskakizunak sortu eta arautzen dituena.

Bidezkoztat jotako izapideak eta txostenak

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Lege Aholkularitzaren txostena, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko sailburuordetzaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, aintzat hartuta zer xedatzen duten, batetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 6.1.a) artikuluan; eta, bestetik, apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 17. artikuluan.
- Generoaren aldeko ebaluazio-txostena, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. Artikuluak ezarritakoari jarraikiz.
- Parte hartzeko aukera eman ahal izango zaie egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioei eta jendaurrean jarri ahal izango da xedapen-proposamena, prozeduran interesdun direnei entzun ahal izateko.
- Ekonomi Kontrolerako Bulegoaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina aintzat hartuz, urriaren 19ko 2/2017 Legegintza Dekretuaren bidez onartzen dena. (27.1. artikulua)
- Xedapen-egitasmoak ez du berekin Europar Batasunaren aurrean burutu beharreko inolako izapiderik.
- Xedapen-proposamenaren behin betiko onarpena izapidetzeko, orain arte aipatutakoez gain, prozedura osoari buruzko memoria labur bat bilduko da espedientera, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan ezarritako edukiarekin.

Hori guztia dela eta, xedapen orokorrak gauzatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen II. kapituluan ezarritakoari jarraikiz, bidezkoa da xedapen berria onartzeko prozedurari hasiera ematea honako Agindu honen bitartez.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: 2019ko ekainaren XXko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuarena Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dekretu berria egiteko prozedura hastea.

Bigarrena: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritza izendatzea prozedura hori izapidetzeko organoa izateko.

Hirugarrena: Agindu honen berri ematea Legesarea lankidetzaren gunean, hala xedatuta baitago Xedapen Orokorren Izapidetza Jaraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian.

Laugarrena: Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua egiteko eta asmatuko dugula eta legezkoa izango dela bermatzeko.

Bosgarrena: Xedapen orokorrak izapidetza eredu eta Tramitazio aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorriz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jaraibideak onartzen dituen; 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jaraibideak onartzen dituen; 2017ko abenduaren 12ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jaraibideak onartzen dituen.

Seigarrena: Prozeduran sortuko den garrantzizko informazio juridikoa argitara ematea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
Bingen Zupiria Gorostidi